


IPAR EUSKAL HERRIAN, METAMORFOSI EKOLOGIKOAREN EGOERA

Geldirik egotearen
«errealismotik» atera

bizi!





→ **Azken 800.000 urteetan CO₂ eta metanoaren (CH₄) kontzentrazioa atmosferan, milioiko zatitan (ppm) neurtua.**

Izotzean harrapatua den gasetan espezialista den Thomas Bauska zientzialari ingelesak eginiko datuen bilduma: "Gure zilindro formako izotz laginak, 800.000 urtekoak dira, Lurrak industria-iraultza baino lehen ez zituela inoiz 300 ppm CO₂ eta 815 ppb CH₄ gainditu argi uzten dute".



→ **Miliar bat pertsona itsasoaren mailaren igoerak** mehatxatua edo bakarrik erdia? 2021eko urriaren 12an, asteartez, argitaratu den ikerketa berri batean Environmental Research Letters aldizkarian, zientzialari amerikar eta alemaniarrek Parisko klima-hitzarmena errespetatuko luken mundu baten eta berotze klimatikoa larritzen utziko luken mundu baten arteko diferentzia neurtzen dute. Argi dute zenbaki hauek ez dutela erran nahi handirik publiko orokorarentzat, ondorioz, autoreek, Climate Central erakunde zientifikoaren laguntzarekin, posible diren gero ezberdinen simulazioak irudien bidez aurkezten dituzte. Beherean, Angeluko Cavaliers-ren sektorea gaur egungo egoeran (ttipiz) eta + 3°C-ko hipotesiarekin (handiz).

ESKALA GUZIETAN GELDIRIK EGOTEA

Duela 30 urte baino gehiago, Klima Aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldeko (IPCCko) zientzialariek politika arduradunak abisatzen dituzte hainbat txostenekin, eta, abisua gero eta premiazkoago bilakatzen da: berotegi-efektuko gasen emisioak ez badira molde masibo eta lasterrean murrizten, tenperaturak gora joanen dira eta hondamendi klimatikoak (bero-boladak, oihan-suteak, uholdeak, ur-maila igotzea...) biderkatuko eta areagotuko dira. Hainbat lurralde ezin bizizkoak bilakatuko dira eta ekosistemak betiko suntsituak edo fundituak.


Alta, diskurtsoak aldatu badira ere, erantzun politikoa geldirik egoetaren eta egitekoak beti atzeratzearen artean dabil. Berotegi-efektuko gasen (BEG) isuri globalak gora egiten ari dira eta «klima aldaketa bizkortzen eta areagotzen ari da» «aurrekaririk gabeko» abiaduran IPCCren arabera. Jadanik +1,2°C-tan gira eta sekulan Estatuek COP21ean hartu Estatu-mailako engaiamenduak errespetatzen badituzte, +2,7°C-ra goaz.

COP26a eztabaidaren erdian delarik, zer espero da Estatuek hartu engaiamenduetarik, jakinez momentuz, Gambiak bakarrik bere engaiamenduak errespetatzen dituela? Frantses Estatua, duela gutti Estatu Kontseiluak horregatik gaitzetsi du, ez baita 2050erako karbono neutraltasunaren ❶ engaiamenduekin bateragarria den ibilbide batean. Testuinguru honetan, helburu hori ezin da lortu, zuzenean edo zeharka BEGen isurketen %50aren erantzule diren tokiko kolektibitateen parte hartzea gabe. Kolektibitateek tokiko mailan deklinatu behar dute ber mailako anbizio bat eta buru belarri lotu lanari. Gaur egun **ez da Euskal Elkargoaren kasua, honek, "errealismoarengatik", ez baitu karbono neutraltasunerako ibilbidea hartzen.** Alta bere lurraldeak baditu Frantses Estatuko batez bestekoa baino karbonoa harrapatzeko gaitasun handiagoak dituzten karbono-putzuak (oihanak eta pentzeak bereziki). Alta, Lille Métropole edo Grenoble Alpes Métropole bezalako beste lurralde batzuek karbono neutraltasuna dute helburu eta inportazioei loturiko isurketak murrizteko ekintzak ere antolatzen ari dira.

Euskal Elkargoaren anbizioak oraingoz ez badira egoeraren araberrakoa, lehen txosten honek, segituak diren 56 herrien eta Euskal Elkargoaren ekintzak aztertzea proposatzen du, bertako biztanleendako lurralde bizigarria segurtatzeko gai den metamorfosi ekologiko bati buruz joateko.

TRANTSIZIOTIK METAMORFOSI EKOLOGIKORA

Aitzineko agintaldiaren bilana egitean, BIZIko Hitz Hitz batzordea ❷ ohartu da segitu dituen 30 herriek (biztanleriaren %75) klimaren aldeko tresna-kutxatik hartutako ekintza oso gutti burutu edota hasi zituztela: trantsizio ekologikoa ez da Ipar Euskal Herrian iragan. Trantsizio hau eta bere urrats ttipiak ez baitziren gehiago IPCC taldeko zientzialariek plazaratzen duten larrialdi klimatikoaren heinekoak, BIZI 2020ko herriko hauteskundeetan lurraldearen **Metamorfosi ekologikoaren Ituna** ❸ proposatu du. Itun honek 7 gai egituratzailetan ekintzak biltzen ditu: bakarkako autoaren erabilpenari alternatibak, eraikinetan energiaren menperatzea, %100 berriztagarriak diren energiaren lurraldea, laborantza eta elikadura tokikoa eta biologikoa, tokiko ekonomiaren garapena Euskoarekin, hondakinen murrizketa eta Klima Planaren plantan ezartzea. Itun hau sinatu duten hautetsiek herri eta elkargo mailan ekintza guziak gauzatzeko engaiamendua hartu dute.



Hauteskundeetako emaitzen ondotik, Ituna izenpetu duten 46 zerrenda hautatuak izan dira. Herri izenpetzaileak hirikoak, hiri-ingurukoak edo baserrialdekoak dira, neurri eta joera politikoa

❶ Karbono neutraltasuna batek igortzen duen adina karbono harrapatzeaz definitzen da. Horren bidez karbono kontzentrazio maila atmosferan egonkortzeko xedea bada. planetaren tenperatura globalaren igotzea mugatuz. Horrek erran nahi du, alde batetik, isurpenak jatorri fosilekoak edo materia bizikoetarik etorriak, nabarmen murriztea eta, bestetik, karbonoa atxikitzen duten putzuak (oihanak eta lurrak) handitzea. ❷ Euskal atsoitz batetik hartuta, Hitz hitza, ala gizona hits. ❸ kus gehigarriak 10. orrian.

guzietakoak, 3 probintzietan eta 9 lurralde eremutansakabanatuak. Baina Hitza Hitz jarraipen batzordeak 2000 biztanletik gorako 10 herri ez izenpetzaileek daramatzaten ekintzak ere segitzen ditu (3 herri: Angelu, Bokale eta Donibane Lohizune eta 7 herri: Ahetze, Arbona, Arrangoitze, Basusarri, Beskoitze, Larresoro eta Ahurti). Ipar Euskal Herriko metamorfosi ez delako haiek gabe eginen! Beraz, Biziren Hitza Hitz batzordeak herritar zaintza bat eramaten du **Euskal Elkargoko jendetzaren %87a batzen duten 56 herritan, Elkargoa ere urraspide honetan engaiatua dela eta, dituen zinegotzi izenpetzaileen bitartez.**

BEGIRALE EKOLOGIKOEN SAREA

Erronken heineko zaintza bat segurtatzeko, Biziren Hitza Hitz batzordeak herritar mobilizazioarekin kontatzen du eta herritar bolondresak koordinatzen ditu beren herrian eta lurraldean parte har dezaten begirale ekologiko gisa. Ekologia zientifikoaren arloan, duten sentikortasunari esker, ekosistemaren aldaketen adierazle goiztiarrak diren espezieak dira begirale ekologikoak. Sagarroia bezala, Hitza Hitzeko begiraleek beren herriko ekosisteman parte har dezakete: herri boluntaristen ereduak ekintzak argitan ezarri, edo beren bizilekua arriskuan jartzen duten proiektu klimatizidak salatuz. Mobilizatzen dira ekintzak eta hitzak bat etor daitezten.

Gaur egun inplikatuak diren 30 begiraleen artean, batzuk jadanik Herriko Etxeko hautetsiekin bilkurak ukan dituzte. «Hitza Hitz? L'écho de la Métamorphose» kazetaren 2. ale argitaratu dituzte, paperezko bertsioan eta digitalean, hautetsi eta herritarrei metamorfosi honen egoeraren berri emateko eta gaiaz sentsibilizatzeko. Desobediencia zibileko ekintza bat ere burutu dute Maulen, auzapezak -bere engaiamenduak urratuz- kendutako bizikleta bide bat, berriz ezarri. Horrela, lurraldearen metamorfosi ekologikoaren alde mobilizatzeko duten determinazioa erakutsi dute begirale ekologikoek.

Hitza Hitz batzordeak hautetsi boluntarioei Itunaren neurriak modu eraginkorrean gauzatzeko prestakuntza programa bat ere eskaini die. Proiektu hau 2020an harturiko osasun neurrien ondorioz atzeratu behar izan da eta une honetan programa berri bat prestatua izaiten ari da.



ORAINDIK KONFIRMATZEKO DEN KULTURA DEMOKRATIKOA

Agintaldiko lehen urte honen bukaeran, Hitza Hitz batzordeak Itunaren sinatzaile diren hautetsiei (izan ditezen gehiengoan edo oposizioan) jarraipen-orri sorta bat bidali die, metamorfosiaren Itunak biltzen dituen arloetan ekintzen aitzinatzea baloratzeko.

Begiraleen hainbat galde saiakeren ondotik (posta elektronikoz, telefonoz eta Herriko Etxeetan eginiko bilkurak) jarraituak diren 56 Herriko Etxeetarik 34ek **5** erantzun dute, hau da, segituak diren Herriko Etxeen %61ak eta Ituna izenpetu duten %72k. Azpimarratzekoa: Donibane Lohizune da Ituna izenpetu ez duten herrietan jarraipen-orriei erantzuna eman dien bakarra.

Hautetsiek eta funtzionarioek jarraipen desmartxan erakutsi lankidetzaren garrantzia agerian emateko xedez, Hitza Hitz batzordeak herrien kultura demokratikoaren maila estimatu du. Maila hura 0-tik 4-rako puntutzean neurtua da, hautetsiek agintaldi hastapenean itzuli mezuelen kopuruaren arabera, lehen txosten horrentzat herriak erantzun zuen ala ez kontuan hartuz, eta erantzunen kalitatearen arabera (itzuli fitxen kopurua, erantzunen osotasuna eta zehaztasuna, ikertu adierazgailuen zenbatekoa).


Bana beste 1,6ko punturekin, herri multzoaren kultura demokratikoa biziki ahula da oraino; lehen txosten horri erantzun dioten herriena mekanikoki hobea da 2,3 punturekin bana beste. Hitza Hitz batzordeak Aiziritze herriaren parte hartze aktiboa azpimarratzen du: baliabide xumeekiko herria izanagatik, kultura demokratikoaren lehen saria irabazi du 4ko puntutzea lortu duen bakarra izanez.

Herriek itzuli adierazgailu kopuru eskasak, izan zenbatekoan ala kalitatean, ez du ahalbidetu txosten horrentzat itzuli emaitzen tratatzea behar bezala. Baina Begiraleek urtean zehar jarraituko dute herriei dei egiten 2020ko datuak eman ditzaten, gutienik agintaldi hastapeneko egoeraren irudia ukaiteko xedez. Donibane Lohizunez kanpo, hiriek ez dituzte galdegiten zitzaizkien datu guztiak bidali. Hau harrigarri da jakinez **datu horiek denon onerako datuak direla eta «Loi pour une République numérique / Errepublikak digitalaren aldeko legea» izeneko 2016ko legeak 3 500 biztanle baino gehiago herriak behartzen dituela datu horien linean ematera.**


4 32 herri bakarrak azterketa oso bat ukan dute zeren Izurak eta Hiriburuk erantzunak aztertutako izateko beranduegi bidali dituzte, Azkainentzat, Herriko Etxeko gehiengoak ez du erantzun, bakarrik Azkaine Baiko hautetsiek fitxak osaturik igorri dituzte. Hitza Hitz batzordeak erabakia hartu du elementu horiek erabiltzea eta argitaratzea Begiraleek bildutako beste ohar batzuekin batera, Herriko Etxeko gehiengoak igorri ez dituen datuak ezin direlako baliatuak izan.

METAMORFOSIA EZ DA ORAINDIK HASIA

Segituak diren herrien aniztasuna hobeki konduan hartzeko, Hitza Hitz batzordeak biztanleriaren tamainaren arabera bereizi ditu herriak bere balorazioan: 26 herrixka (2000 biztanle baino guttiagoko herriak), 15 herri (2000 eta 5000 biztanle artean) eta 15 hiri (5000 biztanletik goiti).



Hitza Hitz batzordeak intsektuen eraldaketaren faseak hartu ditu, metafora sakonduz, herrien metamorfosi mailaren irudikatzen, Itunak hunkitzen dituen 7 eremuetan eramanak izan diren ekintzentzat. Ekintza bakoitzari puntuazio bat esleitu zaio:



→ Metamorfosi ekologikoaren egoera ilustratzen duten piktogramak:

- 1, atzerakada gertatuz gero: lege urratzea edo Ituneko engaiamenduen kontra doazen ekintzak
- 0, alfer egotearentzat: ez da funtsezko deus egin
- 1, arroltzearentzat: ekintzaren hastapen bat abiatu da.
- 2, larbarentzat: ekintzaren %25 eta %50 artean gauzatu da
- 3, ninfarentzat: ekintzaren %50 eta %75 artean gauzatu da
- 4, helduarentzat: ekintzaren %75 baino gehiago gauzatu da


Lehen elementuak lortu bezain laster 1. etapara heltzen ahal bada, larbatik (2 eta gehiago) abiatzen diren faseek kuantifikazio bati egiten diote erreferentzia gehienetan: eskatutako adierazleei buruz informazioak bete ditzala eskatzen diote Herriko Etxeari, Begiraleek baloratu dezaten progresio maila nahikoa denez. Larrialdi ekologikoaren aitzinean, eskaera honek trantsizio ekologikoko ekintza batzuek izaitzen ahal duten dimentsio sinboliko edo ilustratibotik haratago doazen eskala-aldaketaren beharra islatzen du: metamorfosi ekologikoa. Alta, Herriko Etxe askok ez dituzte adierazle horiek eman, edo eskatutako zifrak batzuetan gaizki ulertuak izan dira, eta horrek hein batean esplikatzen ahal du Herriko Etxeek orokorrean lortutako puntuazio apala.

Garaiz erantzun duten 32 herrietan, metamorfosiaren batez besteko puntuazioa 4tik 0,5era baino ez da iritsi. Segituak diren 56 herriak ⁵, konduan hartuz geroz, metamorfosiaren batez besteko puntuazioa 0,3koa da: Ipar Euskal Herriko metamorfosi oraindik ez da abiatual!

Eta hain zuzen ere, emaitzak herrika aztertuz geroz, puntuazioak Angeluko -0,1etik Baiona eta Itsasuko 1,1era doaz, batez bestean metamorfosiaren 1. fasera heltzen diren herri bakarrak azken bi hauek direlarik. Aurrerapen-maila orokor apal honetan, zinez oso gutti aitzinatu diren herriak (0,5etik beherako puntuazioa dutenak) zerotik hurbilago diren eta ekintzarik gabeko Herriko Etxeak bereizi ditugu, arroltze-fasetik hurbilago direnetarik (0,5etik gorakoak). **Herriko Etxeen gehiengo zabala (40) ekintzarik gabeko fasean da.** Ekintza batzuk adierazleei buruz informazio faltagatik guttietsi badira ere, badirudi oraindik bide luzea badela egiteko lurralde forma erresiliente berri bat agertzeko.

BAKARKAKO AUTOAREN ERABILPENAREKIKO ALTERNATIBOAK DIREN MUGIKORTASUNAK

Ipar Euskal Herriko berotegi-efektu gasen isurketan bigarren postu lodiena garraioarena da (pertsonek eta merkantzien



⁵ Horien ekintzak baloratu dira Begiraleek bildutako elementuekin edo herritarren eta elkarleen oharrekin. Ekintza bati buruz informaziorik ez delarik eskuratu, 0 fasean utzi da, alfer egoetaren heinean.



garraioarena), emisio orokorren herena ordezkatuz. «Bakarkako autoaren erabilpenarekiko alternatiboak diren mugikortasun guzien alde ekitera» da 2020ko Metamorfosi ekologikoaren Itunaren lehen engaiamendua. Alta, **oraindik herri gehiegik legea urratzen dute. Sobera usu konduan hartua ez den lege horrek dio bide berri edo bide arraberritze baten egiterakoan, bizikleta egokitzapenak aurreikusi behar direla.** Huna zergatik Bidarte, Hendaia, Maule, Muskildi eta Mugerreko herriek malus ❷ bat eskuratu duten. Ber tratamendua ukan dute Angelu, Biarritz eta Donibane Lohizuneko ❸ auzapezek koronapisten kenteagatik, ordezko antolaketarik proposatu gabe.

Gai horretan, eraldaketaren batz-besteko nota 0,3 / 4 da. Notak tartekatzen dira -0,4tik (herriak egin ekintza klimatizida) lera. Baiona edo Hendaia gisara herri batzu beren bideak antolatzen hasten dira eremu publikoaren beste partekatze modu batentzat ❹.

BEHAKOA

DENA AUTOARENTZAT, OSASUNA ETA AIRE KALITATEA

Bideko garraioa, azoto oxido hedapenaren eragile nagusia da eta airearen kalitatea txartzen duten zatiki meheak ere sortzen ditu. Munduko Osasun Batzordeak (OMS) erreferentziatzko mailak apaldu berri ditu jendartearen babesteko inguruko airearen kutsadurarekiko. Alta, BABko gaur eguneko kontzentrazioek ❶ kasik sistematikoki gaintitzen dituzte ereduizko baloreak izan NO₂ rentzat edota zatiki meheentzat (PM 10 eta PM 2,5) funtsezko kutsadurari doakionez, osasunarentzat kaltegarriena: minbizia, kardiobaskular edo hats patologiak, edota neurologia arazoen gisako eritasun kronikoen garapena edo larriagotzea eragiten dute. Arrazoi bat gehiago laster gure mobilitatearen eraldatzeko!



EGOITZETAN ENERGIAREN MENPERATZEA

Energia-kontsumoaren arloan lehen postua den heinean, egoitzek funtsezko sektorea ordezkatzen dute, zeinetan kolektibitateek ereduagari izateko betebeharrak duten energia-autonomiarako bidea markatzeko. Itunaren ekintzen artean, agintaldiaren hasieratik, herri eta elkargo mailako egoitzen ondarearen berritzeko plan anbiziotsu baten garatzea aurkitzen da, kontsumo maila apala helburu gisa ukanez. Herriko Etxeek eta Elkargoak ez dute oraindik engaiamendu hori bete. Gehienek iragartzen dute Euskal Elkargoarekin bazkide direla Europako ELENA programan, zeinek laguntzateknikoa ematen baitu energia-eraginkortasuneko neurriak ezartzeko eta eraikin publikoetarako energia-iturri berriztagarrien molde deszentralizatuan ekoizteko.

Energia-kostuak goruntz doazen testuinguruan, soiltasunak izan behar du lagundu beharreko lehen xedea: zorianak gaueko argien itzaltzea praktikatzeko 13 herriei. Azkenik, Herriko Etxe askok eraikinen energia-kontsumoa erregularik kontrolatzen dutela erran digute, zifrarik eman gabe. Hala ere, kalitatezko jarraipen batek, datu horiek erraz eskuragarri uzten lagundu behar luke.

Gai honetan, metamorfosiaren batez besteko puntuazioa 4etarik 0,2koa da. Puntuazioak 0 eta 1,3 artean dira. Dena den, Hitz batzordeak begi onez ikusten du Donapaleuko engaiamendua, bere kontsumoaren jarraipen bereziki zehatza egin baitu.

% 100EAN ENERGIA BERRIZTAGARRIDUN LURRALDEA

EHEk, bere Klima Plana eginik, Bizik txalotzen duen helburua nahi du lortu, hau da, energia beharren %100 energia berriztagarrien bidez eskuratzea 2050. urterako. 2019. urtean, Iparraldeko

❶ Agintaldi honetan jadanik izaera horretako urratze bat egin da (edo bidean da). Horiek bakarrik ezagutzen ditugun kasuak dira baina lege hori oraindik ere sarriegi botere publikoek (Herriko Etxeek, Mugikortasunaren Sindikatuak eta Departamenduko Kontseiluak) baztertzen dute. ❷ Mugikortasunaren Sindikatuko presidente gisa BAB etorbideko bizikleta bidearen kentearentzat. ❸ Adierazle eskasa gatik, aitzinatze-maila ezin ebaluatua izan duten ekintzak. ❹ 2020. urteak eta bere konfinamenduek 2021erako egiaztatu beharko den lilura margo moduko jaitsiera laster baten inpresioa eman dezakete.

energia berriztagarrien (EnR) ekoizpena 780,7 GWh zen, hau da lurraldeak duen energia kontsumo osoaren % 12. Alabaina, Ipar Euskal Herriako 2050ean energia positibodun lurraldea ¹⁰ izatera heltzeko, 3249 GWh energia behar dira ekoizti lurralderako aurreikusia den kontsumoa berdintzeko. 2020 eta 2050 artean, egun lurraldean ekoizten den energia berriztagarriaren kopurua bider lau baino gehiago ekoizti beharko litzateke horretarako!

Alor horretan, metamorfosiaren batezbesteko nota 4tik 0,3koa da. Notak 0tik 1,3 arte mailakatzen dira. Herri anitzek ez dute arraposturik eman eta **19 besterik ez dira herriaren parte hartzea baieztatu dutenak energia berriztagarrien ekoizpenean**. Halarik ere, begiraleek Aiziritze, Banka, Baiona, Itsasu, Baigorri eta Urepelek panel fotovoltaikoen kokapenean eta herri eraikinak energia berriztagarriekin elikatzean erakutsi duten engaia mendua goretzi nahi dute.

LABORANTZA ETA ELIKADURA BIOLOGIKOAK ETA TOKIKOAK


BEGen isurketan lehen postua duen laborantzak toki garrantzitsu bat du Ipar Euskal Herrian, abereizaintza nagusi duen ekoizpen batekin. Kalitatezko bertze adar batzuk lurraldeko ekoizpenen inguruan eraiki badira ere, espezializazio honengatik elikadura autonomia oso apala da.

Laborantza/elikadura tematikarendako batez besteko metamorfosia 0,2koa da 4ren gain, puntutzeak -0,3 eta 1,4en artean direlarik. Bakarrik Arrangoitze, Hendaia, Itsasu eta Makea heltzen dira arroltzearen 1. estadiora. Momentuz, inungo Herriko Etxek ez du estrategiarik garatu bere elikadura %100 etxalde ttikietakoa, biologikoa eta tokikoa izan dadin, eta EHEko Lurralde Elikadura Proiektua ez dute aipatzen.


Erantzun duten herrien %23ak bakarrik ekintzak ezartzeko asmoa dutela dio, eta 19 herrik malus ¹¹. bat jaso dute, lurren desagerketa murrizteko helburu ahulegiak izateagatik. Hala ere, udalerrien arteko hirigintza dokumentuak garatzen ari dira horietarik aintz.

BEHAKOA EGALIM¹² LEGEA ETA ESKOLA KANTINEN KARBONO AZTARNA

Haien menuak ikusi izan ditugun 31 udalerrietarik, **15 ez dira EGalim legea errespetatzeko bidean, horietarik 6k ez dute beti astean behin menu vegetariano bat proposatzen** ¹³: Ahetze, Aiherra, Bidarte, Biriatu, Maule-Lextarre eta Senpere. Sara, Donibane Lohizune eta Mugerretik adierazi digute legeak aurreikusten duen ekoizkin biologikoen %20a baino gehiago erabiltzen dutela, baina gure begiraleek haien menuetan askoz gutiago ikusi dute. Begiraleek goresmenak ematen dizkiete Arrangoitze eta Baionako herriei, bakarrik baitira egunero hautu vegetariano bat proposatzen, Itunean hitzeman bezala. **Kontra-intuitiboa badirudi ere, elikagai baten jatorriak karbono-eragin ttikiagoa du jaten dugun janari motak baino**. Izan ere, garraioak zeresan ttikia du elikagai gehienek karbono-aztarneari, oihan-mozteen eta abereen hazkuntzaren (metanoa, ongari nitrogenatuak eta isurketak) garrantziarekin alderatuta. Ikerketa baten arabera, haragi gorria eta esnekiak astean behin bakarrik ordezkatzek oilaskoarekin, arrainarekin, arrautza edo barazkietan oinarritutako alternatiba batekin, karbono-aztarna murrizten du, elikadura guziaz tokikoa izateak bezainbeste.



¹⁰ Energia positiboko lurralde batek bere energia beharrak ahal bezainbat murriztea du helburu, energia urritasunaren eta eraginkortasunaren bitartez, eta behar horiek tokiko energia berriztagarrien bidez hornitzeko xedea. ¹¹ Malus-a ezarri da, hirigintza-dokumentuak lurraren kontsumoaren murrizketa helbururik aurreikusten ez zuelarik, edo ondoko 10 urteetan aitzin-ikusitako helburuek %-50eko murrizketa baino anitzio ttipiagoa zutelarik, aitzineko 10ekin alderatuta, klima legea segituz. ¹² EGalim legeak (Elikaduraren Estatu Orokorraren ondorioz sortuak) eskoletako jatetxeak behartzen ditu menu vegetariano bat astean eskaintzea (2019/11/01tik geroz) eta guttienez %50 produktu jasagarri eta kalitatezko ukaitea %20 produktu biologiko izan behar direlarik 2022ko urtarilaren 1erako. ¹³ Karbono-aztarna murrizteko otorduetan barazki gehiago sartzeak duen garrantzia kontuan hartuta, gai honi buruzko legea ez betetzean -leko puntuazioa esleitu da.



TOKIKO EKONOMIA ETA EUSKOAREN GARAPENA

Euskua Europako tokiko monetarik garrantzitsuena da 2,5 milioi Eusko zirkulazioan direlarik. Gaur, 33 Herriko Etxe Euskoari kideku dira. Ituna izenpetzen duten 46 herrien artean, 21 Euskoko kide dira, eta horietatik **8 kideku dira agintaldiko 1. urtean, Itunaren engaiamenduaren arabera:** Ziburu, Itsasu, Donibane-Garazi, Eiheralarre, Donapaleu, Urketa, Urruña eta Milafranga.

Baina beste 15ek (Aiziritze, Azkarate, Banka, Behaskane, Kanbo, Zaro, Ezterenzubi, Irulegi, Jatsu, Liginaga-Astüe, Aldude, Mugerre, Pagola, Arrosa eta Urepelek) ez dute beren engaiamendua bete agintaldiko 1. urtean, eta oraindik ez diote segidari eman Euskal Monetak egin dien bilera egiteko eskaerari.

Emaitza orokorra, pozgarria bada ere, ez da nahikoa, engaiatu diren herrien %45ek bakarrik atxiki baitute Euskoarekin 2020etik beretik kidezeko engaiamendua. Segituak diren 56 herriak konduan hartuz gero, %38ra erortzen gira. Gai honetan, Herriko etxeak kolektiboki arrautza fasera iristen ari dira. Eredu honetan metamorfosiaren abangoardian diren herriak Donibane Garazi (herria), Uztaritzen (herria), Itsasu (herrixka) dira.

HONDAKINEN MURRIZTEA ETA EKONOMIA ZIRKULARRA

Ipar Euskal Herrian, hondakinen kudeaketa Bil Ta Garbi sindikatu mistoaren esku da eta bilketa Euskal Elkargoaren esku. Tamaina ezberdineko 30 Herriko Etxek (13 herrixkak, 7 herrik eta 10 hirik) haien hondakinen kudeaketari buruz erantzunak ekarri dituzte: arlo honetan duten inplikazioa nahiko eskasa da. Orokorrean, Herriko Etxeek, ardura beste kolektibitateena dela erranez, aitzineko agintaldiko txostenetan baino gutiago baztertu dute. Herriek sarriago aitortu dute elkarte munduko eragileekin, Carrioles Vertes bezalakoekin, bio-hondakinak jatorrian sailkatzeko ekimenetan parte hartu dutela, material organikoaren benetako tokiko zirkulazioa sustatuz. Adierazi dutenez, garatzen ari diren Aima, Lokala, Konpon Txoko eta Recycl'Arte bezalako Birziklapen eta Konponketa Kafetegien alde ekin dute, konponketa eta berrerabilpenaren bidez hondakin tonak saihesteko.

Hala ere, Euskal Elkargoak eta Bil ta Garbi jarduteko palanka nagusiak badituzte ere, Itunaren sinatzaile diren hautetsietarik inork ez du aipatu Euskal Elkargoko batzorde bateko kide gisa (exekutiboa, permanentea, poloak) edo Bil Ta Garbi sindikatuko

batzorde kide gisa hartu inizatibarik. Gai honi dagokionez, udalak ez dira orokorrean arrautza-fasera heldu.

KLIMA PLANA ETA EUSKAL ELKARGOA

Oraingo bertsioan, Euskal Elkargoaren Klima Planaren estrategiak BEG isuriak %-19z murriztea baino ez du helburu 2030ean eta 2050ean %-56z murriztea. Ibilbide honekin, argi eta garbi, Ipar Euskal Herriak ez du bere zati justua hartzen klima-aldaketaren kontrako borrokan. Lurralde bakoitzak bere berezitasunak baditu eta ezin baditugu zehatz-mehatz helburu berdinak exijitu kolektibitate guzientzat, begi bistakoa dirudi lurralde-maila bakoitzak murrizketa-ahalegin nahikorik egiten ez badu, ezinezkoa izango dela karbono neutraltasuna lortzea Estatuaren mailan edo Nazioarte mailan. Horixe ere baieztatzen du Klimaren Goi Kontseiluak 2021eko txostenean: «Ezinbestekoa da lurralde ekintza SNBCren helburuekin lotzea. [...] Bada erronka orokor bat lurralde antolamenduko dokumentuak normen hierarkian haiek baino goragoko dokumentuekin lerrokatzeko.» Horregatik Bizil Klima Planaren Lankidetzat Batzordetik (COPAR-etik) ateratu da 2021eko maiatzaren 14.

Osasun krisiaren ostean, Klima Plana onartu da 2021eko ekainean bakarrik. Herriko Etxeei agintaldiko bigarren urteko proiektzioa eskatu zaie. Herrixka batek ere ez du erantzun bere lurraldean Klima Planaren deklinatzeke herriko plan bat %50kbazuela erranez. Engaiatuak diren herrien %25k eta hirien %50k erran dute agintaldiko 2. Urtearentzat ekintzak gauzatzeko xedea dutela. Segituak diren herrien %5ak dio 2022. urterako plangintza-proiektu bat dutela. Ekintzara igarotzea oso gutti ageri da erantzunetan eta aipatutako ekintzek ez dute Klima Plan baten egituraketa-izaerarik. Baionak eta Bidartek soilik diote egoeraren diagnostikoa egin dutela baina haien diagnostikoa beren webgunean eskuragarri ezarri gabe.

Klima Plan batentzat arauzko betebeharrak bada ere, Euskal Elkargoak ez du argitaratu klima-aldaketara egokitzeke lurralde-ekintzaren kostuen edo balizko geldirik-egotearen kostuen baloraziorik. Dena den, jakina da inertzia politikoak

ekintza politiko proaktiboak baino askoz ere ondorio sozioekonomiko garestiagoak izanen dituela, eta tokian tokiko proiektzioak izateak hautetsiak mobilizatzen lagunduko dituela, ez da dudarik.

Gainera, Metamorfosi Ekologikoaren Itunaren engaiamenduek Euskal Elkargo maila hunkitzen dutelarik eta Euskal Elkargoko Kontseilu Exekutiboko kideen %60 Itunaren sinatzaile direlarik, ez da ia aipamenik egiten elkargoko hautetsiek bultzatutako neurriei buruz.

HERRITAR ERREALISTA GISA JOKATU

Hautetsi gehiegik oraindik uste dute errealismoak urrats ttikiak agintzen dituela. Edo planetaren mugak eta horien gaintzearen ondorioak ez dituzte ikusi nahi, edo ezagutzen dutena ez dute sinesten. Hala ere, historiak erakusten du jendarteek errotik eraldatzen ahal dutela beren antolatzeke moldea. Errealismo zientifikoak dio fisikaren legeak ezin direla desafiatu. Aitzinean dugun alternatiba, edo berehalako, aukeratutako eta sozialki desiragarria den bihurtun baten aitzin ikustea eta haren alde ekitea, edo azelerazio handian jarraitzea eta datozen hondamendiak pasiboki jasatea, atzerazekin bihurtuko baititugu.

Lurreko ekosistemei jasan arazi diegun metamorfosiak, jendarte arduratsuen metamorfosi ekologiko bat galdatzen du. Hori, eskala guzietan eta eremu guzietan, etengabeko hondamendia geldiarazteke eta erregimen klimatiko berrira egokitzeke. Lurralde-maila gehiengoarentzat eskuragarri den abiapuntua da, eta eskala horretan, **herritarrek, deliberatuak eta antolatuak, Begirale ekologiko gisa ekiten ahal dute, beren herrian eta beren lurraldean ekologikoki jasagarria eta sozialki bidezkoa den metamorfosia bultzatzeko.**

Echelle	2030	2050
Union Européenne (Paquet Climat)	- 55 %	neutralité carbone
France (SNBC)	- 40 %	- 83 %
Nouvelle-Aquitaine (SRADDET)	- 45 %	- 75 %
Agglomération Pays Basque (Plan Climat)	- 19 %	- 56 %
→ Deskarbonazioaren eskalak eta asmoak 15		

14 <https://bizimugi.eu/bizi-se-retire-du-comite-partenarial-du-plan-climat-pays-basque> 15 Taula honek funtsean irudikatzeke xedea du, jakinez BEG emisioak murrizteke helburuentzat, erreferentzia urteak, aldatzen direla konduan hartzen diren eskalen arabera.

GEHIGARRIAK

Hiri/Herria: Zerrendaren izena:

Zerrenda buruaren izen, abizen eta kontaktuak:

ITUJUNA 2020

IPAR EH-KO METAMORFOSI EKOLOGIKOA

Kontziente gara baitezpadako beharra badela indar eta determinazio osoz Herriko Etxeen eta Euskal Elkargoaren mailan ekiteko, planeta mailako beroketa +2°C edo +1,5°C-ra mugatzeko, nahasmendu klimatikoaren hipotesirik txarrena saihesteko, jendarteari eta planetaren bio-aniztasunari etorkizun bizigarria eskaintzeko. Ondorioz, 2020ko martxoan hautetsi bilakatzen bagara, gure zerrenda engaiatzen da Herriko Etxe eta Euskal Elkargoaren 2020-2026ko agintaldian:



BAKARKAKO AUTOAREN ERABIL-PENAREKIKO ALTERNATIBOAK DIREN MUGIKORTASUN GUZIEN ALDE EKITERA

Bideen edozoin birmoldatzerentzat, lekualdatze moduak ondoko ordenan lehenetsiz: oinez ibiltzea > bizikleta > autobusa > autoa. Herriko bide guztiak bizikletaz erabiltzeko gisan ezarri, egokiena den birmoldatzearen bidez: abiaduraren ttipitzea, bizikleta bide edo zintekin, bizikletei kontrako-norabidea ahalbidetuz. Ipar Euskal Herri osoan garraio publiko eskaintza baten garapenean parte hartzea, jendartearen beharrei egokituak zaizkien maiztasun, ordutegi eta prezioekin.



EGOITZETAN ENERGIAREN MENPERATZEAREN ALDE EKITERA

Kargualdiaren lehen hilabeteetan, Herriko eta Elkargoko eraikitzen ondarearen arraberritze termiko plan anbiziotsu bat bozkatzuz, kontsumo apalaren maila helburu izanez. Eraikin berriak, pasiboak eta energia ikuspuntutik positiboak direnak soilik eraikitzea. Négawatt-en lehentasunak segitzea: neurritasuna, eraginkortasuna, energia berriztagarriak. Etxebizitzaren prekaritate energetikoaren kontra borrokatuz eta kontsumo elektrikoaren ttipitzea sustatuz, lurralde animatze ekintzak plantan ezarri (Energia Positibo Desafioa). Egoitzen kontsumoaren jarraipen erregularra segurtatzea.



TOKIKO ELIKAGAIEN ETA LABORANTZA BIOLOGIKO BATEN ALDE EKITERA

%100 tokikoa, herrikoa, gehigarri kimikorik gabekoa/biologikoa den elikagaia helburutzat duen laborantza eta elikadura estrategia bat obratuz, Herriko eta Elkargoko egituretan. Kolektibitateko jantzigietan ekinez, tokiko menu biologikoekin eta hautu begetariano batekin (hautzaindegia, eskola, zahar-etxe, etab.). "Klimarentzat ona den" elikaduraren banaketa erraztuz (ekoizle saltegi, AMAP, janari-saltegi kooperatiboa...). Elikadura burujabetza lortzeko xedearekin, lantzen ahal diren lur erreserbak babestuz.



%100 BERRIZTAGARRIAK DIREN ENERGIEN LURRALDE BATEN ALDE EKITERA

Gure lurraldean, energia berriztagarrien ekoizpena garatuz, 2045eko energia autonomia %100 berriztagarria izatea helburutzat ukanez: fotovoltaiakoa, haize-energia, metanizazioa, berotasun sarea, energia hidroelektrikoa, marea-energia, etab. Tokiko ekimen herritarrak lagunduz elektrizitatearen ekoizpenaren (I-ENER) eta hornitzearen (ENARGIA) alorrean. %100 berriztagarriak diren elektrizitate, gas eta tokiko ekoizpenetik datozen egurraren bidez hornituz Herriko eta Elkargoko eraikin eta ekipamenduak.



EUSKOAREN GARAPENARI ESKER TOKIKO EKONOMIAREN ALDE EKITERA

Euskal Moneta elkartearen kide bilakatuz, 2020tik beretik, eta Tokiko Kolektibitateen Biltzarrean parte hartuz, Herrian eta Euskal Elkargoan, lurralde-langile, hautetsi, biztanle eta enpresen artean euskoaren erabilpena garatzeko molde hoberearen ikertzeko eta definitzeko.



HONDAKINEN MURRIZTEAREN ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ALDE EKITERA

Lurraldeko biztanle eta aktore guztiak parte harraraziz, hondakinen prebentzio eta kudeaketa estrategia bat definituz. Bio-hondakinak jatorrian bereiziz. Konpostatzearekin, bakarkakoa edo kolektiboa, posible delarik, balioztatzea sustatuz. Bestenaz, sukaldeetako bio-hondakinak bereiz biltzea antolatuz. Neurriak hartuz berinaren biltzea hobetzeko eta haren berrerabilerara buruz joanez itzultze sistemari esker. Prezioen ttipitzearen bidez praktika onen sustapena obratuz. Berrerabileraren lehenetsiz, birziklatze eta konponketaguneei esker, %100 birziklatzearen bila ibili ordez.



IPARRALDEKO KLIMA AIREA ENERGIA LURRALDE PLANA OSOKI GAUZATZERA


Herri mailako plan bat bozkatzuz, udalaren Klima Planaren ardatz obragarriak zehaztuko dituen deliberamendua hartuz, kargualdiaren lehen urtea bukatu aitzin. Honen plantan ezartzearen garden-tasuna segurtatzera, jarraipen tresnen bidez. Klima Planaren helburuekin bateragarriak ez diren proiektuak ez obratuz.

Sinadura

info@bizimugi.eu / www.bizimugi.eu



GEHIGARRIAK



**OUVRE L'ŒIL
SUR TA COMMUNE**

DEVIENS SENTINELLE ÉCOLOGIQUE !


**ZURE HERRIARI BURUZ
BEGIAK ERNE ATXIKI**

BEGIRALE EKOLOGIKO BILAKA ZAITEZ!

SENTINELLES.BIZIMUGI.EU



www.bizimugi.eu | 05 59 25 65 52
20, 22, Cordeliers karrika - 64100 Baiona



KONTSULTATU HERRI
BAKOITZARENTZAT BERE FITXA:
ituna2020bizimugi.eu

Herritarren, herrien eta elkarten iritzi,
info-osagarri eta kritika eraikitzaileak ongi etorriak dira
hitzahitz@bizimugi.eu helbidera.

Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean argitaratua da, eta horrek banaketa librea baimentzen du,
erabilera komertziala izan ezik, egilearen aipamenarekin eta edukia aldatu gabe.



Azaleko argazkia: Pablo Ordas